



Usurbilgo Udala

2019KO OTSAILAREN 26AN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka
Xuban Zubiria Elexpe
Jone Urdampilleta Urdampilleta
Iñaki Ugarte Agirre
Irene Gartzia Palacios
Miren Josune Estella Arranz
Jose Mari Iribar Zapirain
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Andoni Atxega San Sebastian
Carlos Perez Fraisoli
Fermin Orue-Echevarria Iturri

Idazkaria: Irantzu Arrizabalaga Gainza.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2019ko otsailaren 26an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

1.- AURREKO AKTEN ONESPENA:

* 2018/12/20KO AKTA.

Bilkura honetan ez zirenez egon, Josune Urkola eta Fermin Orue-Echevarria abstenitu egin dira.

Gainontzeko batzarkideen aldeko botoarekin 2018ko abenduaren 20ko bilkurako akta gehiengoz onartu da.



Usurbilgo Udala

*** 2019/01/29KO AKTA.**

Batzarkideek, 2019ko urtarrilaren 29ko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2019KO URTARRILAREN 21ETIK OTSAILAREN 15ERA (2019/0101-2019/0201).

Alkatezak 2019ko urtarrilaren 21etik otsailaren 15era bitartean (2019/0101–2019/0201) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

3.- 2018KO EKITALDIKO ORDAINKETA EPEAREN INFORMAZIOA: 4. HIRUHILABETEKOA.

Alkateak jakinarazi du kontu-hartzailearen aldaketa eman dela. Karmele Lizasok Usurbilen zuen metaketa utzi egin duela adierazi du, Zarauzko Udaleko lanak eta Usurbilgoak aurrera eramateko ezinean baitzebilen. Orain, kontu-hartzaile berria daukagula esan du, Pedro Etxarri Lezoko kontu-hartzailea, eta honek Usurbilen heren bateko dedikazioa duela.

Kontu-hartzaile aldaketarekin batera ohiturak eta lan egiteko modu berriak ere iritsi direla esan du eta dirudienez tartean hiru hilabeteko ordainketa epearen informazioa plenora ekartzearena.

Udal honetan ohitura dela dio plenora ekarri beharrekoak aurrez batzordeetan informatuta ekartzea eta honek guztiz ustekabeen harrapatu dituela adierazi du. Taldean erabaki dutela dio Pedrorarekin informazioa kontrastatzea, Ogasun batzorde bat egitea eta hurrengo pleno batetara informazioa ekartzea.

Alaitz Aizpuruak zehaztu du Karmelerekin hiru hilabeteko hainbat informazio emailez banatzen zela eta tartean ordainketa epearena ere informatzen zela.

Josune Urkolak hainbat zalantza mahai gaineratu ditu eta erantzun zaio batzordean argituko zaizkiola.

Beraz, puntu hau mahai gainean geratu du.

4.- A-81 (ZUBIETAKO KASKOA) EREMUKO HEU 81.5 EXEKUZIO UNITATEKO XEHETASUN-AZTERKETA BEHIN BETIKOZ ONARTZEA.



Usurbilgo Udala

Alkateak esan du puntu hau Hirigintza batzordean tratatu zela eta bertan arkitektoak honi buruzko azalpenak eman zituela. Arkitektoak azaldu bezala, bere garaian Zubietako Plan Partziala eta urbanizazioa egin zirenean, eremu hau jaso gabe geratu zela eta geroztik inkorporatu omen zen. Orduko baldintzetara egokitzeko Xehetasun Azterlan hau egin dela esan du, non zehazten diren hor egingo den etxebizitzaren lerrokadurak, zesioak, etab.

Batzarkideek, Hirigintza batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp. Zenbakia: HZ.01/2018-0428

AURREKARIAK

MIKEL URDIAIN SOTIL jaunak, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-81 (Zubietako kaskoa) Eremuko HEU 81.5 Exekuzio Unitateko Xehetasun-Azterketa aurkeztu dute dagokion izapidetzea izan dezan.

Alkatetzak 2018ko azaroak 26an, udal teknikarien aldeko txostenak kontutan izanik, 2018/1471 zenbakidun dekretuaren bidez, zera erabaki zuen:

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-81 (Zubietako kaskoa) Eremuko HEU 81.5 Exekuzio Unitateko Xehetasun-Azterketa hasieraz onartzea.

BIGARRENA: Espedientea jendaurrean jartzea 20 lanegunez, dagokion iragarkia iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta ohizko egunkarietan argitaratuz, interesatuek azterlana aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

Xehetasun-Azterketa jendaurrean jarri aurretik, interesatuak Xehetasun-Azterketa euskaraz zein gazteleraz aurkeztu beharko du paperean zein euskarri digitalean.

Hartutako erabakia kontutan izanik, espedientea jendaurrean jarri zen 20 lanegunez ondoko iragarkia argitaratuz:

- Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala (232. zenbakia): 2018-12-03
- BERRIA: 2018-11-27
- GARA: 2018-11-27
- EL DIARIO VASCO: 2018-11-27

Espedientea jendaurreko epealdian egon den bitartean ez da alegaziorik tartekatu.



Usurbilgo Udala

Guzti hau ikusirik, Hirigintza Batzordeak, 2019ko otsailaren 14an egindako bilkuran, Xabier Arregi, Jone Urdanpilleta eta Fermin Orue-Echevarriaren aldeko botoekin, eta Mirari Azurmendiren abstentzioarekin, onartutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatza plenoak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENDABIZI: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-81 (Zubietako kaskoa) Eremuko HEU 81.5 Exekuzio Unitateko Xehetasun-Azterketa behin betikoz onartzea.

BIGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-81 (Zubietako kaskoa) Eremuko HEU 81.5 Exekuzio Unitateko Xehetasun-Azterketa Foru Aldundira igortzea, bertako hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan gorde dadin.

HIRUGARRENA: Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-81 (Zubietako kaskoa) Eremuko HEU 81.5 Exekuzio Unitateko Xehetasun-Azterketaren behin betiko onespena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hirigintza-plana Foru Aldundiko hirigintza plangintzaren erregistro administratiboan jaso dela aipatuz.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari ematea, Zehaztasun Azterlanaren izapidetze gastuak helaraziz.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- MARTXOAREN 8KO GREBA FEMINISTA BABESTEKO ERAKUNDE ADIERAZPENA.

Josune Estellak erakunde adierazpena irakurri du.

Jarraian, Josune Estellak jakinarazi du Usurbilen bertan emakume talde bat ari dela greba eguna antolatzen eta egun horretan parte hartzeko gonbidapena luzatu du.

Batzarkideek, Parekidetasun batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

“Esp.zk.: BE.06/2019-0004



Usurbilgo Udala

EH BILDUK aurkeztutako mozioak horrela dio:

“2019 MARTXOAK 8greba feminista babesteko ERAKUNDE ADIERAZPENA

laz, lehenengo aldiz, Euskal Herriko Mugimendu Feministak emakumeen lan etenaldi partziala deitu zuen Martxoaren 8rako, indarkeria matxistak eta emakumeak eragiten dituen desberdintasun molde ugari eragiten dituzten desorekei aurre egiteko. *Emakumeok Planto – Nosotras Paramos* lelopean, emakumeak zapaltzen dituen sistema kapitalista, patriarkala eta arrazista salatu zen.

Euskal Herriko emakume askok bat egin zuten greba dei horrekin eta mugarriztat jo zen, borroka eta aldarrikapen feministek bisibilizazio handiagoa lortu ondoren Euskal Herrian.

Aurten, Euskal Herriko Mugimendu Feministak, eragile sindikal, politiko eta sozialekin batera, 24 orduko greba deia luzatu du. Greba bost ardatzetan antolatzen da: zaintza, enplegua, pentsionistak, ikasleak eta kontsumoa. Greba feminista, guztion bizitzan eragiten duten esparruetan kokatzen da, soldatapeko zein doako lanetan, kontsumo ereduan, sexualitatean, arrazakerian, etab. Horregatik, grebaren bitartez, ardura kolektibotik abiatuta bizitza sostengatzeko itun sozial berri bat eskatzen dio euskal jendarteari, berdintasun erreala eta eraginkorra bermatuko duten politika publikoak burutuz. laz bezala, aurten ere zaintza erdigunean kokatzen da, zaintzaren berrantolaketa soziala politika publikoen zeharkako ardatza izan behar dela aldarrikatuz.

Horregatik, eta Euskal Herriko Mugimendu Feministaren motibazioa eta proposamenarekin bat egiten dugunez, Usurbilgo Udalbatzak

1. Mugimendu feministak deitutako grebara atxikitzea, eta erakundea osatzen dugun emakumezko hautetsi eta langileei greba egin ahal izateko erraztasunak ematea.
2. Herritarrei dei egitea mugimendu feministak deitutako mobilizazioetan parte hartzeko.

-BOZKETA-

2019ko otsailaren 20an egindako Parekidetasun eta Aniztasun Batzordean irizpen honen proposamena, aho batez onartu da.

Honenbestez, Parekidetasun eta Aniztasun batzordeak onartutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du:

E R A B A K I A

Lehenengoa: EH BILDUK aurkeztutako mozioa onartzea.”



Usurbilgo Udala

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Gartzia Palacios, Miren Josune Estella Arranz, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

6.- GALDERA-ESKAERAK.

Alkateak esan du pasa den asteburuan zoritxarrez beste eraso sexista bat gertatu dela herrian eta horren aurrean udal honek, herriko mugimendu feministarekin batera, gaur arratsaldeko zazpietarako elkarteratze bat deitu duela jakinarazi du.

Azpimarratu du udal honek horrelakoak ez dituela onartzen. Era berean, ekintza isolatu bezala ez direla hartu behar, oinarrian arazo estruktural bat dagoela uste dute, eta guztiok elkarrekin horri aurre egin behar diogula.

Elkartasun irudia emanaz, denak batera elkarteratzera joateko gonbita luzatu die gainerako batzarkideei.

Josune Urkolak adierazi du elkarteratzean egoteko asmoa dutela.

Gaiaz aldatuz, alkateak adierazi du udalean aldaketa aroan gaudela eta, tartean, Plan Orokorreko programarekin jarraituko duen Nora Erdozia arkitektoa kontratatu dela jakinarazi du.

Bestalde, formalizatu gabe dagoen kontua dela esan du baina aipatu du kontuhartzailertzan kontratazio berri bat egingo dela. Kontuhartzailea heren batean egon dela akumulazioan eta orain berria ere hala egongo denez, hainbat gabezia sortu direla adierazi du, hori dela eta, denboraldi baterako giza baliabide berrien beharra ikusi dela aipatu du.

Gaineratu du kontuhartzaile titularra den Xabier Olanok ekainean bueltatzeko asmoa adierazi duela, beraz, akumulazioa Olano bueltatu bitartekoa dela.

Alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:20ean eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.